



ARTEAREN HISTORIA

Proposatzen zaizkizun galdera-sorta hauetatik, bat aukeratu eta erantzun. Galdera bakoitzaren gehieneko balioa 2,5 puntukoa izango da.

1. GALDERA-SORTA

1. **Arkitektura erromatarra: “Agriparen panteoia”:**
 - Egin lanaren analisia (testuinguru historiko-kulturala, eraikitze sistema, espazioa, hizkuntza formala...), eta esan zein diren lan horretan ikusten diren arkitektura erromatarraren ezaugarri eta berezitasunak.
2. **Eskultura erromanikoa:**
 - Ezaugarri orokorrak: eskultura monumentalaren hizkuntza formala, gaiak, zertarakoa eta kokapena.
 - Aipatu portada erromanikoren bat.
3. **Errenazimentuko eskultura. Migel Anjelen “Moises”:**
 - Egin lanaren analisia (testuinguru historiko-kulturala, gaia, zertarakoa, esanahia eta formaren analisia), eta esan zein diren lan horretan ikusten diren errenazimentuko eskulturaren eta Migel Anjelen eskulturaren ezaugarri berezkoak.
4. **Postinpresionismoa: Van Gogh:**
 - Van Gogh-en pintura bereizten duten ezaugarriak, eta zer ekartzen dien XX. mendeko pintura abangoardiei.
 - Aipatu itzazu postinpresionismoan sartzen diren beste pintore batzuk.

2. GALDERA-SORTA

1. **Eskultura grekoa: Polikletoren “Doriforoa”:**
 - Egin lanaren analisia (testuinguru historiko kulturala, gaia eta analisi formala), horren bidez nabarmenduz Greziako klasizismoaren ezaugarriak.
2. **Arkitektura gotikoa: Chartresekko katedralaren oinplanoa eta aurretiko bista:**
 - Egin lanaren analisia (testuinguru historiko-kulturala, eraikitze sistema, oinplanoa, aurretiko bista, mintzaira formala, sinbolismoa...), eta esan zein diren lan horretan ikusten diren katedral gotikoaren ezaugarri eta berezitasunak.
3. **Pintura barrokoa:**
 - Pintura barrokoaren ezaugarri defintizaileak.
 - Eskola holandarra: Rembrandt.
4. **Arkitektura organikoa:**
 - Ezaugarri defintizaileak.
 - Frank Lloyd Wright.

